



Iraultza baten atarian

Inaki Irazabalbeitia*



Duela egun batzuk *Ezagutu Gipuzkoa* CD-ROMa aurkeztu zuen Elhuyar Kultur Elkarreak. Gertaera hori guztiz pozgarria da benetan.

CD-ROMa fisikoki gauza txikia da, 12 cm-ko diametroa du ozta-ozta. Alabaina, oso aurrerapauso garrantzitsua da euskal kulturaren, ene irudiko.

Zergatik? galdetuko duzue. Euskal kulturaren historiari begiratzea baino ez dago arrazoia aurkitzeko. Kultur aurreramenduen trena galtzea edo berandu hartzea izan da azken mendeotako euskal kulturaren zorigaitzoko patua; hizkuntza idatzia, unibertsi-tatea, inprenta, hizkuntzaren batasuna, egunkaria, irratia, telebista... Beti berandu iritsi gara eta arnasestuka, urruntzen ari den trenaren azken bagoiaren atzeko eskudelari oratu nahian ibili gara.

Une honetan ordea, kultur adierazpideak jauzi iraultzaile baten aurrean dagoen momentuan, euskara eta euskal kultura, lehen aldiz beren historian, trena garaiz eta eroso hartzeko paradan daude.

Hamalaukeriatan, handi-mandikeriatan nabilela pentsa dezake baten batek, eta hori pentsatzea zilegi bekio bidenabar. Ez da horrela, aitzitik, eta berriki hori egiaztatzeko aukera izan dut.

Duela aste batzuk Italian, Bolognako liburu-azoka ospetsuan, izan nintzen. Bertan liburu elektronikoak eta multimedia bidezko pro-

duktuek toki berezia zeukaten eta munduko argitaletxe garrantzitsuenak beren produktuak erakusgai zituzten.

Produktuak ikusita, arduradunekin hitz egin da haiek gu baino aurreago ez daudela ohar-tu nintzen. Haiek eta gu multimediarren lasterketaren hasieran gaude, guztiok lerro berean, belaunak flexionaturik, epaileak tiro egin eta abiatzeko prest. Beraz, aldi berean abiatuko gara, batzuk lasterrago, beren kultur kemena handiagoa delako eta beste batzuk, motelago, atzean nahikoa indarrrik ez dugulako. Elkarrekin abiatu gara alabaina, ez besteek jada 50 metro korritu dituztenean.

Ez da, beraz, makala begien aurrean daukagun erronka. Batzuk horretaz jabetuta daude jada, Gipuzkoako Diputazioa esaterako eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiot Gipuzkoako Diputazioari eta aldi berean, zorionik beroena. Eskerrak, multimediaren lasterketan parte hartzeko laguntza eskergaitz eta oparoa eman digulako. Zorionak, Gipuzkoako Diputazioa aurrera begira dagoela frogatu duelako. Euskal kulturaren oraingo erronka non dagoen jabetzeko abilezia izan duelako eta horren alde apostu egin duelako.



* ZETIAZ - Elhuyar